

# Hondakinen prebentziorako ekimenak landuko dira aste honetan

Gaiari buruz film bat eskainiko da Donezteben eta Elizondon

## TTIPI-TTAPA

Azaroaren 19az geroztik Hondakinen Prebentziorako Europako Astea egiten ari dira hainbat tokitan, eta hilaren 27ra arte horrela izan da. Hondakinen Prebentzioaren kontzeptua ezagutzera ematea da helburua eta horrekin batera, hondakinak eta horien eragina muriztea. Izan ere, sortzen den hondakin kopurua altua da, egunean 1,2 kilo zabor sortzen baititu bakoitzak. Nafarroak, erraterako, 641.293 biztanle ditu eta 769.550 kilo hondakin sortzen dira egunean.

Europar Batasunak finantzaturako proiektua da kanpaina hau eta Nafarroan, Landa Garapen eta Ingurumen Sailak sustatu du CRANA baliabideen zentroaren birtartez. Eskualdeko hondakinen Mankomunitateek ere bat egin dute.

Europar Astearen harira, hainbat ekimen paratu dira martxan: janari hondarrekin sukaldeko errezeta tailerrak, zi-

nema-hausnarketa saioak... Horrez gain, Nafarroako Gobernuak [yonolotiro.es](http://yonolotiro.es) webgunea ere estreinatuko du, berrierabilpena sustatu eta zaborrontzietara bota ordez, trukatu, saldu edo oparitzeko proposatuz.

Zinema-hausnarketa saioen barne, ortziral honetan, azaroak 25, *Glup* filma ikusteko aukera izanen da Doneztebeko zinemaman, Malerrekako Mankomunitatearen eskutik, 17:00etan. Eta biharamunean, hilak 26, film bera ikusteko aukera izanen da Elizondoko Jorge Oteiza Museoan, Baztango Udalak antolatuta, 17:00etan.

## PREBENTZIORAKO ZER?

Hondakinen prebentziorako neurriak ere proposatu dira: ontziratutako gabeko produktuak erosi, txorrotako ura edan, telazko mukizapi edo eskuoihalak erabili, erabiltzen ez dena oparitu edo trukatu, produktuak berrierabili, bigarren eskuko dendetan erosi... Honela, poltsikoan ere aurrez daiteke: Frantzian egindako ikerketa baten arabera, lau laguneko familia batean irizpide horiekin, urtean 512 euro aurrez daitezke pertsonako.